



EUSKADI JAPAN
日本 バスク州2023

Aukera-sektoreak Japonian

Laburpen exekutiboa

2023ko martxoa

1. SARRERA

Japonia lehentasunezko herrialdeetako bat da Eusko Jaurlaritzaren 2021-2024rako nazioartekotze estrategian. Ekonomia sendoa du, merkatu konplexu baina oso erakargarria, nazioarteko jarduera handiko bezeroak dituen, batez ere teknologia arloan eta sektore espezifikoetan, eta euskal enpresen presentzia eskasa duena.

Txosten honetan laburturik aurkezten dira euskal enpresentzat negozio-aukera izan daitezkeen zenbait sektore.

Aztertu ditugun sektoreak dira: automobilgintza, energia berriztagarriak, gailu medikoak, makina-erreminta eta informazio eta komunikazio teknologiak.

Sektore bakoitza aztertzean aintzat hartu dira merkatuaren eta inportazioen panorama, balio-katea, balizko aukerak eta aukera horietara iristeko bidea.

Euskadin eta Japonian dituen adituen bitartez, BasqueTrade & Investment zuen esanetara jartzen da sakonago aztertzeko Japoniako merkatuak zuen enpresarentzat eskaintzen dituen aukerak. Bi ekonomia hauek elkarrengana gehiago hurbilarazteko, 2023. urtea Euskadi-Japonia urtea izendatu da. Urte horretan zehar hainbat aukera-sektore landuko dira modu bilateralean, balizko kolaborazioak bilatzeko.

LABURPEN EXEKUTIBOA

Japonia oso merkatu garrantzitsua da, bai bere industria eta BPGaren tamainagatik, bai inguru horretako beste merkatu batzuetara sartzeko bidea delako, eta baita ere bere gaitasun teknologikoagatik eta horrek guztiak sorraz ditzakeen aliantzengatik. Hainbat arrisku- eta aukera-adierazle kuantifikatzeko BasqueTradek duela gutxi egindako azterketa batean, Japonia munduko hamar herrialde interesgarrien artean kokatua agertzen zen.

Azkenaldian egindako ikerketa batzuek diotenez, une honetan Euskadi gutxiago esportatzen ari da Japoniara ahal duena baino, eta, aldiz, EBrekiko ituna sinatu denetik badirudi Japoniako enpresak gehiago ari direla aprobetxatzen bi merkatu horien arteko hesiak gutxitu izana.

Japoniak ematen dituen aukerak hainbat eratan gauzatu daitezke, dela esportazioen bidez, dela tokian bertan inbertsioak eginez, dela lankidetzak akordioak sinatuz. Japonian kostuak altuak dira, baina kostu txikiagoak dituzten beste inbertsio-aukera batzuk ere egon daitezke.

Aurretiazko laburpen honetan bakarrik aurkezten ditugu zenbait sektoretako aukeren gaineko ideia nagusiak. Irakurleak sektore bakoitzari buruzko informazio osoago aurkituko du kapitulu bakoitzean.

Automobilgintza

Automobilgintzaren industria oinarritzko zutabea da Japoniako ekonomian: dagoeneko ibilgailu arinen munduko bosgarren fabrikatzaile handiena da, 90etik gora lantegi ditu ibilgailuen mihiztadura eta osagaien fabrikazio sektorean, eta 5,5 milioi langile hogeita bostetik gora prefekturatan.

Oso industria berritzailea da eta teknologiak bultzatua. Japoniako eta mundu osoko merkaturako ibilgailu hibridoen produkzioa goraka doa, berdin gertatuko da laster ibilgailu elektrikoekin, eta nazioarteko eskaintzak ere gora egingo du.

Bestalde, merkatu hau oso berezia da, ibilgailu arinen produkzioan OEM nazionalak direlako nagusi (nazioarteko OEM gutxi batzuk baizik ez dira kokatu Japonian, eta kokatu direnak bakarrik I+G jardueretarako).

Japoniako merkaturan sartzeko eta bertan onartua izateko funtsezkoa izango da balio erantsi bat eskaintzea Japoniako merkatuari. Hona hemen zenbait produktu-aukera zeintzuetan Japoniak esperientzia edo baliabide gutxiago dituen eta, hortaz, atzerriko eragileak onuragarriak gerta dakizkiokeen beste merkatu batzuetan bildua duten esperientziarengatik:

- CASE (Konektagarritasuna, Autonomia, Erabilpen partekatua eta Elektrifikazioa), MaaS (Mugikortasuna Zerbitzu gisa), ICT (Informazio eta Komunikazio Teknologiak), gidaketa automatizaturako kamera eta sentsoreak, LIDAR (Tele-detekzio optikoa) eta RADAR (Irrati Uhin bidezko Detekzioa) teknologiak.
- Ibilgailu elektrikoentzako osagai eta teknologia espezifikak
- Erdi-eroaleen fabrikazioa
- Beste esparru batzuk, hala nola Bizi Zikloaren Ebaluazioa (BZE), ekonomia zirkularra eta deskarbonizazioa

Japoniako merkatura sartzeko prozesuan hesi handiak aurkitu daitezke eta, hortaz, estrategia fidagarri bat planteatu behar da ezertan hasi baino lehen. Estrategia onena da ingurunea ezagutzen duen tokiko ordezkari edo bazkide bat izatea, eta gero harreman iraunkor bat garatzea bidea zabalduko duena eskala handiagoko lankidetzak bat sendotzeko.

Energia berriztagarriak

Energia berriztagarrien merkaturak goraka doa Japonian, eta espero da gaitasun instalatua 100 GWtik (2022) 161 GWra hazi 2030ean. Berriztagarrien merkaturak eguzki-energia fotovoltaikoa da nagusi gaitasun

instalatuaren aldetik, guztizkoaren %85 hartzen duelarik. Halere, aurreikusita dago energia eolikoak hazkunde handia izango duela, egungo 5 GWtik (ia denak onshore) ia 15 GWra iritsiko delarik 2030ean, horietatik 8 GW onshore eta ia 7 GW offshore. Uste da offshore energia eolikoaren garapena 2025etik aurrera indartuko dela bereziki.

Japonia lanean ari da merkatuaren ezaugarrietara egokitutako araudi-esparru egonkor bat sortzeko, bere bitartez bultzatzeko offshore energia eolika. Aldaketa zenbait onartu dira oraintsu enkanteetan berdintasuna bermatzeko, eta beharbada laster onartuko da erosketa-sistema zentralizatu bat, zeinaren bidez gobernu proiektuaren hasierako faseetan inplikatu litzatekeen; hartara, garatzaileak ez lirateke izan beharko hasierako azterketen egileak eta enkanteak eraginkorrak izango lirateke.

Orobat ohargarria da Japonia egiten ari den lana hidrogenoaren inguruan. Momentuz, Japoniak apustu irmoa egin du hidrogeno berdearen zein urdinaren alde, eta bere produkzio gaitasuna handitzeko asmoa du, urtean 2 milioi tona ekoiztetik 3 milioi tona ekoiztera iristeraino 2030ean, eta 20 milioi tona 2050ean. Gainera, bere elektrizitatearen % 1 hidrogeno berdearekin eta amoniakoarekin sortu nahi du 2030erako. Horretako, Japoniak hainbat tresna dauzka esku artean, hala nola 2017ko Hidrogenoaren Estrategia Nazionala, mundu osoko aitzindarietako bat.

Euskal enpresentzako aukera erakargarrienak offshore energia eolikoaren esparruan daude eta, batik bat, energia flotatzaileen arloan. Nitxo horietako hornikuntza-katea ez dago behar bezain garatua, eta behar adinako jakintza eta esperientzia duten atzerriko enpresak beharko dira. Gainera, tifo eta lurrikaretarako joera duen zonalde geografikoa izaki, oso garrantzitsua da fenomeno horien ondorioak prebenitu edo arintzeko gai izango diren teknologiak garatzea. Hidrogenoari dagokionez, Japoniako gobernuak ikerketan inbertitzen ari da eta, gainera, EBk eta Japoniak lankidetzako memorandum bat sinatu dute hidrogenoaren arloan, lagungarri izan daitekeena Japoniako enpresekin kolaboratzeko.

Gailu medikoak

Japonia munduko bizi-itxaropen luzeena duen herrialdeetako bat da eta bere osasun-sistema gainkargaturik dago, gaixotasun kronikoen eta iraupen luzeko gaixotasunen tasa altuak dituelarik. Erronka horiei aurre egiteko, Japoniak munduko osasun-sistema aurreratuenetako bat dauka, gastu handia egiten du osasun arloan, eta estaldura unibertsaleko aseguru medikoa eskaintzen du. Nahiz eta nagusiki diru publikoarekin finantzatzen den, osasun zerbitzu gehienak sektore pribatuak ematen ditu. Japoniako osasun sektore pribatuak sektore publikoak baino lau bider ospitale gehiago ditu, eta ospitale pribatuak eskaintzen dituzte herrialdeko ohe guztien bi heren baino gehiago.

Gailu medikoen merkatua urteko % 5 haziko da Japonian 2021-2026 urteen artean. Horrek esan nahi du, 2026an 34.100 milioi dolarreko sektorea izango dela. Irudi bidezko diagnostiko-ekipoek gailu medikoen merkatu-kuotaren % 28 ordezkatu zuten, eta atzetik sailkatu ziren instrumentazio kirurgikoa (% 25,2), kontsumigarriak (% 19,4), pazienteari laguntzeko gailuak (% 10,6), hortzetako produktuak (% 9,1), eta ortopediako produktuak eta protesiak (% 7,7).

Japoniako merkaturan biziki garrantzitsua da gailu medikoen inportazioa (merkatuko ia % 80 inportatzen du), eta produktu berritzaileek pisu handia dute. Tokiko produkzioari dagokionez, Japoniako ekialdea gailu medikoen industriaren gune nagusitzat jotzen da. Sare senda bat dauka, gailu medikoen enpresez eta unibertsitatez osatua, eta bertan daude baita ere osasun sektorearekin lotutako berrikuspen eta akreditazio organismo gehienak, Tokioren duen hurbiltasunagatik.

Japoniak aukera ugari eskaintzen ditu *Silver economy* bideratutako produktu mota guztientzat, inbasio-gradua gutxitzen duten goi-mailako teknologiko produktuak eta osasun sektorearen digitalizazioarekin lotutako ororentzat.

Makina-erreminta:

Japonia munduko hirugarren makina-erreminta fabrikatzaile nagusia da, bigarrenetik (Alemania) oso hurbil dagoelarik. Potentzia esportatzaile garrantzitsua da, kalkulatzeko baita atzerriko enpresek sortzen dutela eskaera guztien % 65 baino gehiago. Batez ere nabarmentzen da metalen ebaketako segmentuan, zeinetan garrantzi handia baitute mekanizatuko zentroek (produkzioaren % 40 2021ean) eta tornuek (produkzioaren % 25 2021ean).

2021ean, pandemiaren ostean, eskaera indartsu berpiztu zen, eta baliteke hazkunde sostengatuari eustea datozen urteetan. Aurreikuspenen arabera, industriak urteko % 5,3ko batez besteko hazkundera izango du datozen bederatzi urteetan, eta 13.400 milioi dolarreko mugarria gaindituko du 2026an. Eskaera-sektore garrantzitsuenen artean aipatzekoak dira makineria industrialak (% 39 2021ean) eta automobilgintza (% 23 2021ean). Halere, badaude hainbat erronka industriaren hazkundera mugatzen dutenak, batez ere osagai erdi-eroaleen eskasia, zeinak produkzioa moteltzen jarraitu baitezake. Gainera, inportazioak ez dira eskaera bezainbat suspertu pandemiaren ostean.

Euskal enpresentzako aukera garrantzitsuenek zerikusia dute aliantza teknologikoak garatzearekin eta I+G-ko lankidetzarekin, zaila baita Japoniako merkatura sartzea bere itxitasunagatik eta mundu mailako liderra delako makina-erremintaren esportazioan. Halere, hainbat adituk diote ba litekeela aukerak sortzea automobilgintza sektorean, produkzio-lantegiak nahitaez eraldatu beharko direlako modelo elektrifikatuak fabrikatzen hasteko, eta

horretarako ezinbestekoa izango delako makineria berria. Gainera, zenbait adituk adierazi dute makina tolestaileen automatizazioa zertxobait atzeratuta doala gainerako merkatuekin alderatuta.

Merkaturako sarbideari dagokionez, atzerriko enpresa gehienek aliantzen bidez operatzen dute, eta ezarpenak ez dira ohikoak. Banaketari dagokionez, ezinbestekoa da ongi garatutako sare bat izatea. Eskaera asko sare sektorialekin lotutako enpresa merkaturatzaileen bidez egiten dira, eta osagai txikien kasuan (tamaina txiki eta ertaineko mekanizatu-zentroak) banatzaileengana jotzen da.

Informazio eta Telekomunikazio Teknologia

2020ko urte fiskalean IKTen arloko operazio komertzialen salmentak 416.900 milioi dolarrekoak izan ziren, %3,4 gehiago aurreko urteko datuen aldean. Zenbait sektoretan –elektronikan, sektore militarrean, nekazaritzan edo eraikuntzan– areagotu egin da Gauzen Interneten oinarritutako gailuen erabilera eta gailu horien zabalkundea IKT teknologiaren merkatuko motor nagusi bihurtu da azken urteetan, hazkundea etengabea izan delarik. Sektoreka, salmenta guztien %33,4 telekomunikazio sektorekoak izan ziren (aurreko urtean baino %0,6 gutxiago), %32,1 software industriakoak (%0,4 puntu gutxiago) eta %14,9 informazioaren tratamendu eta zerbitzu sektorekoak (%1,0 puntu gehiago).

Nahiz eta Japonia beste herrialde asko baino aurrerago doan digitalizazioaren hainbat alderditan, esaterako azpiegituren garapenean, Barne Gai eta Komunikazioetarako Ministerioak (MIC) prestatutako txostenek diote ba litekeela zertxobait atzeratuta egotea digitalizazio orokorrari dagokionez. MICen arabera, atzerapen hori arrazoi multzo korapilatsu baten ondorioa da. Hauek hain zuzen: IKTetako inbertsioen moteldura; inbertsioak IKTetan erreforma operatiborik egin gabe; giza baliabiderik eza IKTetan, edo giza baliabideen banaketa desorekatua; aurreragoko esperientzia arrakastatsuak: iraganean esperientzia arrakastatsua izan duten enpresak optimizazio espezifiko horretan oinarritu ziren negozioa hobetzeko, aldaketa drastikoak egin beharrean, eta ez ziren izan gauza gizarte digitalaren etorrerari erantzuteko; antsietatea eta erresistentzia digitalizazioarekiko; alfabetatze digital eskasa.

Kontsultatu diren sektoreko adituek aukera batzuk identifikatu dituzte EBko enpresentzat, baina diote kontu handiz aztertu behar dela merkatura nola sartu, merkatu heldu eta oso konplexua delako. Hona hemen modu batzuk:

enpresetan urrunetik lan egitea ahalbidetzen duten programa informatikoak; lainoko konputazioa eta lainoko zerbitzuak; badago adimen artifizialaren beharra sektore jakin batzuetan, esaterako osasun arloko irudi bidezko diagnostikoan, eraikuntza arloko ikuskapenetan edo mugikortasun sektorean. Espero da softwarearen industriak hazkunde handia izango duela etorkizunean lainoko konputazioan, teknologia ekologikoetan eta jasangarritasunean. Lanerako modu aldakorrak bultzatuko dira arlo horietan; robotikan, Europako enpresek publikoa erakar lezake euren teknologia propioarekin eta teknologia hori aplikatzeko modu zehatzarekin; mugikortasun adimendunaren esparruan, berriz, Japoniak oraindik ez dauka nahikoa teknologia, zeren nahiz eta teknologia eskuragarri egon, ez baita lortu Japonian zabaldu dadin.



**BasqueTrade
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia



Urkijo Zumarkalea, 36-5. solairua, Plaza Bizkaia Eraikina

48011 Bilbo info@basquetrade.eus

(+34) 94 403 71 60